

Interneteko **ARGIA** ekonomikoki lagundu nahi duzu?

► PUBLIZITATEA ►

2014ko azaroaren 14a | Ordua Euskal Herrian 13:52:28

EGUNEKOAK

ASTEKARIA

BLOGAK

MULTIMEDIA

Bilatu ARGIA-n

argia *Kultura*

🏠 POLITIKA NAZIOARTEA GIZARTEA EKONOMIA EUSKARA INGURUMENA HISTORIA **KULTURA** ZIENTZIA IRITZIA ENGLISH

KULTURA LITERATURA EUSKAL LITERATURA Kirmen Uribe Haur eta gazte literatura Anjel Lertxundi Ramon Saizarbitoria Koldo Izagirre +

🖨 INPRIMATU ✉ IRUZKINAK

Pello Salaburu eta Hasier Larretxea idazleek Baztango Iruritan bat egin zuteneko kronika



Mikel
Asurmendi
2014-11-13

Tweet 5

Follow @masurmendi

Gomendatu 0

👍 1

👎 0



2436





Pello Salaburu eta Hasier Larretxea. "Errateko nituenak (Cuzcoko kronika)" eta "Larremotzetik" liburuen egileak.

Urriaren 18an, bi idazle baztandar bildu ziren Irurritako Jauregiarte Taberna kulturalan: Pello Salaburu eta Hasier Larretxea. Bi belaunaldiko idazleak. *Errateko nituenak (Cuzcoko kronika)* eta *Larremotzetik* liburuen egileak, hurrenez hurren. *Erein* argitaletxeko Inazio Mujika Iraolak erran zuenez, "ez dira sobera idazle baztandarrak". Hartara, pozgarria izan zen euren liburuak elkarrekin aurkezteko ikustea lagun andanaren aitzinean.

Pello Salaburu ezagutzeko parada izan zuela adierazi zuen Hasier Larretxeak. Hona, *Errateko nituenak* liburuaz izan zituen pasarte zenbait:

H. L.: Pelloren liburua lanbro arteko kronika da. Koktel gisa aurkeztu daiteke, koadro inpresionista baten zertzeladak biltzen baititu: kronika, fikzioa, autobiografia, gogoeta eta ikerketatik emandakoak. Estetikarekiko eta literaturarekiko konpromiso humanista dakar zabaltasun osoz, halaber baina, liburua konpromisorik gabe zertu du: libre. Errateko zituenak arrapaladan paratu ditu, hizkuntza eder eta soilez. Haraneko hiztegi aintzerekin burbildu zaigu. Niri ezezagun nituen istorioak eta bizinenak burhilarazi dizkit

2435

2437 zenbakia.
2014ko azaroaren 16a
AZALA PDF-n

Astekaria **Larrun** **Hemeroteka**

Elkarriketatuak **Egileak** **Atalak**

Babeslea



Argia

f Atsegin dut

7.741 lagunek **Argia** atsegin dute.



f Facebookeko plugin soziala

Jaso egunero email bakarrean eguneko 10 albisteak. Eta astean behin, astekaria. **Dohainik.**

Idatzi e-posta albiste bu

Ale berean...



Euskal baleazaleen

amizadekin harbiak zaigu, niri ezezagunak nituen istorioak eta bizipenak harbiak izaniz.

Errateko nituenak bere esparruko lanetan bete ezin izan zituen esperantzak betetzeko idatzia da. Bizitzako gertaerak surrealismoaren ukituak dituztenez, umorearen presentzia berebizikoa da. Aste batean, Peru eta Euskal Herriaren artean, biak ala biak lan esparruak dituela, iragana eta oraina uztartuz, bere bizitzako kronika txirikordatu du memoria bidaia den liburu honetan.

Kitxuen zibilizazioa epopeia gisa ekarri digu. Hainbat gaiei buruzko iritzia eman du ironia sotil eta finez, harriz eta herriz osatua. Literatura lan ausarta bezain duina eskaini digu Pellok, ekialdeko euskalkietatik lehenago iritsi gabeko lerroakadurak ekarri ditu, irakurle ororen gozamenerako eta ikasketarako lagungarriak. Euskara batua izugarri aberasten dutenak.

Pello Salaburuk *Larremotzetik* liburuaz errandako zenbait pasarte azpimarratu ditugu, halaber:

P. S.: Liburu bakoitzaren azpian istorio aunitz daude, baina liburuak historiak kontatzen dituzte aldi berean, benetako gertaerak eta istorioak nahasten dituzte. Batzuk kontakizun linealak dira eta bertze batzuk ez. Estiloak du funtsa, eta halaber, autoreak sentitzen duena idazteak, baita irakurtzen duenak hori jasotzea. Sentimenduak helaraztea berebizikoa da idaztean.

Gizonek negar egitea ia debekatua izan da, baita hemen ere, Baztanen. Gizonek negar egiten dute edota negar egiteko gogoia dute, eta gelara doaz negar egitea. Hasiarren liburuan sentimendu horiek kausitu ditut.

Hasier bere historia kontatzera heldu da. Sentitu dituen gauza aunitz ederki adieraziak dira, bere sentimenduak isuri ditu orrialdeetan, literaturaren bidezko sentimenduak aizkorakadak dira. Sentimenduak burrustan agertzen dira batzuetan, eta pitinka-pitinka bestetan, bertze batzuetan ezustean, lerro artean. Metaforaz betetako liburua da. Batek ez daki noiz den poesia, noiz prosa. Ez dakizu ongi noiz hasten diren historiak eta noiz akitzen diren istorioak. Baztango inguruko kontakizunak, batzuetan bata bertzearekin lotuak dira eta bestetan flashak, piztu eta itzali egiten dira. Hor ageri dira nik bizi izan nuen Baztan haren zatiak: neoizko argiak, behe-lainoa, hileta elizkizunak, prozesioak, karrikak, bisaien absentsia, ilunabarrak, familiako norbait Bidasoako bazterretan hilda.

Bi baztandar gara, bi belaunaldietakoak, aski diferenteak, bakoitzak bere kontuak ekarri ditu. Haatik, “40 urte pasa ondoren ez nuen uste Baztanek berdin segitzen zuenik”, erran nion Hasierrri liburua irakurri ondoren. Gauzak aldatuagoak izango zirela pentsatzen nuen. Haatik, egia da ere, gauzak aldatu direla, esaterako, liburua duela 40 urte ez zen hemen argitaratuko. Munduaren aldatzearen erakusgarria ere bada *Larremotzetik*, indar handiko liburua.

Hasierrek isilpean bereganatu behar izan zituen bere erreferentzia kulturalak. Iruñera joanez, isilean, liburuak eta diskoak erosten hasi zen. Iruñera joan zen –ulertu aldera– “baztandar batek ezin baitu kultura kontuetan ibili, belarra moztu behar du, landara joan behar du tomateak landatzera”. Baztandar hau baina bertze mundu batzuen bila atera zen, hautsi behar izan zuen bere inguruarekin. Xarmanki kontatzen du zergatik ikusten zuen maizago erreka goibela zero argia baino.



**portua, gizateriaren
ondare**




Jabier Kaltzakorta

"Idatzizkoa eta ahozkoa bi mundu guztiz ezberdinak dira"



**Lan eskaintza faltsuak
egiten dituzte ikastaroak
saltzeko**



**Maddalen Arzallus eta
Ramuntxo Christy**

"Euskara plazara ateratzea da Xilabaren funtzioa, bertsoaletzea baino gehiago"



Mexikoko desagertuak

"Mexikoko Gobernuak erantzukizun zuzena dauka ikasleei gertaturikoan"



A9 - Kontsulta Katalunian

Kataluniako jendeak du boterea



**Kataluniako desanexioa
'to go further'**

Bertze nonbait bizitzea hautatu zuen, eta orain itzuli da Baztanera, zerbait kitatu behar zuelako nonbait. Liburu diferentea da, hainbat pasarte eta mundu daude berean. Aberastasuna eta goxotasuna agerikoak dira. Horiek historiarako berreskuratu ditu Hasierrek, barnean dituenak partekatu nahi izan ditu jendearekin, larre motzetik etorri da horregatik.

Galderak:

Hasierrek Pellori: **Zein arrazoik bultzatu zintuen liburu idaztera?**

P. S. : Liburu anitz idatzi dut, baina bat bakarra ez literaturaren bidez. Ezinezko zerbait iruditzen zitzaidan, errespetu handia diet literatura idazten dutenei. Arantza banuen sartua, baina ez nekien nola atera. Perura egindako bidaiak surrealismoaren muga guztiak hautsi zituen. Bortz egunez hamar gauza egitera joan eta horietatik deusik ez zen –edo genuen– gauzatu. Hango jendearen izateko moduak eraginda edo, aste horretan konbentzitu nintzen zerbait idazteaz.

Perurako bidaia aukera izan zen imajinazioa bidaian jartzeko. Egonaldiak eskribitzeko denbora eman zidan, imajinazioan aitzina eta gibelera joateko. Bidaia geografikoa baino arimaren bidaia da liburua. Perun, ene buruan –uste ez– nuen erregistro bat ukitzeko manera kaustu nuen. Nire barnean sartu nintzen eta ezin izan nuen bertatik atera.

Pellok Hasierri: **Eta zu?**

H. L.: Haran honetan sortuak eta kontatzeko beharra batzen gaitu. Zuk erran bezala, *Larremotzetik* nire itzulera prozesuarekin lotzen da, iraganarekin eta haranarekin baretzeko eta baketzeko modu bat da. Duela zortzi urte utzi nuen harana eta Madrilera joan nintzen bizitzera. Han ez dut hemengo basoa, hiri handia da, baina kulturarekiko hurbiltasuna duzu, beste lekuetan ere aurki dezakezu, baina hiri handiak erraztasuna handia ematen dizu kultur ekimenak bizitzeko.

Liburua ere omenaldia da iragan hurbilari, jende xumeari, bizimolde batzuei. Faltan dituzun horiek nostalgiaz daramatzazu, parajea eta familia kideak, eta jendeak. Liburua solasaldi bat da distantzia tarteko, edo distantziaren bitartez. Tartean istorio edota gertaera lazgarriak daude. Horiek kuestionatu eta gogoetatu ditut. Zer dela eta jende horiek jokatu zuten horrela. Korapilo horiek nola bizi izan ditudan, toki batean sortzeak zer-nolako zama sortzen dizun zure baitan...

Funtsean, parajearen isla zara edo gara, haranaren isla. Liburua ere biluzte ariketa izan da amaren aurrean. Editorearekin erronka ere badago, oreka bat lortu aldera. Testuei herra kendu beharra, indar handiko testu zenbait ziren, eta hobe izan da herra hori kentzea *Larremotzetik*-an

Lagunen arteko entzule batzuen galderak:

Zure burua deitoratu zenuen naturaren erdian. Ez duzu zerbait “galdu” izanaren sentsazioa?

H. L.: Aitak erakatsi zizkidan gauza askori ez nion eskaini behar bezalako arreta: enborra nola moztu, harria

nola bizkarreratu... Testu hori kirol esparrutik, basotik eta naturaren ingurutik heldu da. Basoko lana lanbidea baitu aitak. Autokritika egin nahi izan dut. Belaunaldi arteko transmisioa agertu nahi izan dut, hainbat esapide, usadio, esentzia jaso nahi izan dut. Baditut bai ikastekoak, zuhaitzen inguruan ikasi gabekoak. Egingen dut berriz ere itzulua aitarekin.

Cuscotarrez ari zarenean, euskaldunoz ari ote?

P. S.: Bai. Ez dut ironiaren puntua galdu nahi izan, Baztanen erabili izan duguna. Klabe horretan idatzi nahi izan dut. Perun, zenbait gauzetan –ketxuarrekin batez ere, aimarekin ez hainbeste–, hemen duela 50 urte ginen puntuan daude. Gure hizkuntzari buruzko gauza anitz jarri ditut haien ahotan, behin baino gehiagotan erabili dut kitxuaren inguruan euskararen inguruan geratzen dena. Hainbat kontu salatu nahi izan dut.

Sarritan diogu euskara dela munduko hizkuntza politena, aberatsena, jainkoren hizkuntza, paradisuan erabili omen zena. Hori xe bera ere badago han, edo antzekoa. Nik egin beharreko masterra horren inguruan zen. Hori euskara batuarekin lotzen dugu. Hau da, hemengoan ahoan erranik gordinak lirateke, baina ketxuarren ahoan bestera erranik agertzen da. Klabe aunitz daude. Irakurleak batzuk harrapatzen ditu, bertze batzuk ez. Horregatik, irakurle bakoitzak ezberdin ulertzen ditu istorioak eta historiako gertaerak, baita Baztan harana bera ere.

Liburuak zuen bizitza aldarazi al dizue?

H. L.: Bai. Madriletik etorri eta familiarekin eta lagunekin bizitakoak bizitza aldarazi dit. Garoa liburu-dendan [liburuaren aurkezpenean] burutu genuen ekimena izugarria izan zen. Aitari enborra moteko gonbidatzeko modua. Aizkoraren soinua bertan entzutea esperientzia berria izan zen. Publikoa hurbilarazi dugu, kirola eta literatura batu. Aizkolari izateko bide horretan nire bidea nola bukatu zen azaltzea polita izan zen. Familia eta beste batzuen onarpena eta esker oneko hitzak jasotzea, homosexualitatea landa eremuan nola bizi izan nuen kontatzea.

P. S.: Bai. Honelako liburua idazteak barnea mugitzen dizu. Barnetik atera behar baduzu zerbait, liburua bide egokia da horretarako. Liburu honekin hori sentitu dut lehen aldikoz. Ez dakit bizitzeko modua aldatzen dizun, edo zuk aldatzen duzun zure bizimodua –edo jarrera batzuk– liburua idazteko. Ez dakit non hasten da bat eta non bestea, baina horrek aldarazten dizkigu gauzak ikusteko modua eta familiarekin harremanak ere, senideen artekoak. Pentsa ezazue nola eta zein neurrian aldatzen den, galdera nire andreak egin baitu.

Post Scpritum: Irriak eta algarekin finitu zen solasaldia. Jendearen arteko solasek ahamen eta tragoxka artean segitu zuten aitzinatzean.

Interneteko **ARGIA** ekonomikoki lagundu nahi duzu?

0 Iruzkin argia

Berrienetik hasita



Hasi eztabaida...

Izan zaitez lehena iruzkina argitaratzen

Harpidetu Gehitu Disqus zure webgunera Pribatutasuna

argia HARPIDETZAK

Kazetaritza independentea eta profesionala egiten dugu, euskaraz eta euskaldunontzat.

HARPIDETU ORAIN



TITULARRAK E-POSTAN JASO NAHI?

Idatzi helbide elektronikoa

ALTA EMAN




EGUNEKOA | POLITIKA | NAZIOARTEA | GIZARTEA | KULTURA | EUSKARA | EKONOMIA | ASTEKARIA | MULTIMEDIA

Nor gara | Kontaktua | Lege oharra | RSS jarria | Iragarri | Harpidetu | Tel: 943 371 545

1998 - 2014 KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabandu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.



Cookie-ak erabiltzen ditugu, baina datu pertsonalak ez ditugu gordetzen. [Zer dira cookie-ak?](#)

COOKIE-AK ONARTU